

## Iazko ikasturtean 446 Gradu, Aditu eta Master Bukaerako Lan aurkeztu ziren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2015/11/10

2014-2015 ikasturtean, guztira, 446 Gradu, Aditu eta Master Bukaerako Lan aurkeztu ziren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; lan horietatik guztietatik asko, gainera, ikastetxe eta erakundeekin elkarlanean gauzatu ziren.

Laugarren mailara iritsita, taldetan edo bakarka, Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduetakoko ikasle guztiek egin behar izaten dute euren Gradu Bukaerako Lana (GBL). Ikaslearen ikasketa prozesuan, lan mardul horiek bete behar dituzte, besteak beste, hurrengo ezaugarriak: batetik, landu behar dute, proiektu erreal batean, graduaren erabilitako kompetentziak, bestetik, erakutsi behar dute ikerlan sakon bat egiteko gauza direla, eta, azkenik, GBLak balio behar du hurbiltzeko lan mundura eta irtenbideak emateko esparru horretan sortzen diren premiei. Unibertsitate masterretako eta aditu tituluetakoko ikasleek ikasketa amaierak lan horiek, jakina, izaten dira handiagoak eta sakonagoak.

Gradu zein Master Bukaerako Lanak txosten akademikoan aurkeztu behar dira eta epaimahai baten aurrean defendatu. Lana egiteko ikasleek unibertsitateko tutore baten laguntza izaten dute, eta kasuaren arabera, erakunde edo ikastetxearen beste tutore batena ere bai.

Honako ikasketa bukaerako lan kopurua aurkeztu zen iazko ikasturtean:

### Gradu Bukaerako Lanak (GBL) eta Master Bukaerako Lanak (MBL)

- Graduetan: 373.
- Graduondoetan: 73.



Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 2014-2015 ikasturteko ikasle eta tutoreak Gradu Bukaerako Lanen aurkezpen egunean.